

2013-09-04

Datorren martitzenean irekiko ditu atea Oñatiko Haur Liburutegi eraberrituak

Datorren astetik aurera Oñatiko Haurren Udal Liburutegira doanak hainbat gune aldatuta aurkituko ditu. Izan ere lehen solairuan zeuden bi bilera gelak 0 eta 6 urte bitarteko umeendako liburutegi bihurtu dituzte. Ondorioz, egungo Haur Liburutegia bera ere berrantolatu egin dute.

Ikasturte berriarekin, antolaketa berria eta leku gehiago izango ditu Oñatiko Haur liburutegiak. Izan ere, Arantzazu Ibarrondo Oñatiko Udal Liburutegiaren arduradunaren esanetan, hamar urteren ostean, leku gehiagoren beharra ikusten zuten, bai jendearentzat eta baita lan egiteko ere. Gauzak horrela, kultur etxeko lehen solairuan zeuden bi bilera gelak 0 eta 6 urte bitarteko umeentzako liburutegia izango dira aurrerantzean: "Ume txikiek helduekin irakurketa partekatzeko lekua behar dute eta hau aisiaaldi lasaia partekatzeko gunea izango da" dio Ibarrondok.

Gune berri honek, 6-7 urtetik gorakoentzat dagoen lekua berrantolatzeko aukera eman du, eta hori, liburutegira doazen nerabeentzat ere onuragarria dela dio Udal Liburutegiko arduradunak. Joan den astean egin zituzten berrantolaketa eta margotze lanak, eta espazio berriak datorren astetik aurrera, hilaren 10etik aurrera egongo dira erabilgarri.